



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko martxoaren 18a

37. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

—Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duena. Proposamena erretiratzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da belaunaldiarteko bizikidetzeta dela-eta dauden modalitateetan sakondu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrikus ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuaren eta CANASAREN aitzinean, lankidetzan aritu eta Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko proiektua onesteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua premiatzen da behar diren baliabide eta bideak abiaraz ditzan, Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan gertaturiko abusuak ezagutu eta argitzeko. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi egingen baita adingabeei egindako sexu-abusuzko delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzio-epeak luza ditzan. Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin. Hezkuntza Batzordeak onetsia (8. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aurrekontu-aldaketak egin ditzan, Valle del Roncal CAIDISa berritzeko eta handitzeko obrak 2020an has daitezen. Eskubide Soziales-tako Batzordeak onetsia (10. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezten (horietako baterako euskaraz jakin behar da). Behin betiko izendapena (11. or.).

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duena.**

*PROPOSAMENA ERRETIRATZEA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, adierazi zuen jakinaren gainean dagoela Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen duen Lege proposamena erretiratu izanari dagokionez. Aipatu Lege proposamena Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2020ko urtarrilaren 10eko 2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan egin dezan memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere egiten du europar memoria historikoak Europaren batasunerako duen garrantziari buruz Europako Parlamentuak 2019ko irailaren 19an onetsitako Ebazpena (2019/2819 (RSP)).

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abuztuaren 23a Estalinismoaren eta Nazismoaren Biktimen Oroimenezko Europako Eguna izan dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lan egin dezan, Espainia eta Europako gainerako erakundeekin koordinatuta, memoria historikoaren europar kultura komun bat sortzeko, oinarritua zorrotasunean, tolerantzian, era guztietako totalitarismo eta erradikalismo erlijioso eta politikoen errefusean, berradiskidetzearen bilaketan eta humanismo nahiz demokraziaren balioen defentsan”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da belaunaldiarteko bizikidetzaren dela-eta dauden modalitateetan sakondu dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da belaunaldiarteko bizikidetzaren dela-eta dauden modalitateetan sakondu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua eta arlo horretako eskumenak dauzkaten gainontzeko departa-

mentuak premiatzen ditu belaunaldiarteko bizikidetzaren dela-eta dauden modalitateetan sakondu dezaten, Errealitatearen Behatokiak taxututako dokumentuarekin bat, belaunaldiarteko bizikidetzaren ereduaren proiektu pilotuak garatuz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du belaunaldiarteko bizikidetzaren ereduak direla-eta egiten diren ekimenak gure foru erkidegoko toki ezberdinetan gara daitezen eta toki entitateen, elkarten eta gazteen nahiz adineko pertsonekin zuzeneko harremana daukaten taldeen parte-hartzearekin egin daitezten.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du genero ikuspegia jaso dezan belaunaldiarteko bizikidetzaren dela-eta dauden modalitateetan, estrategiak ezartzerakoan gure herrietan sortzen ahal diren desorekak arintzeko”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berrius ditzan gaur egungo protokoloak eta bitartekoak, eutanasia arautzeko lege proposamenaren arau-garapenaren ondoren prozedura berririk behar den edo ez detektatzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Diputatuen Kongresuak eutanasia arautzeko legea onetsitakoan eta ber-

tan jasotakoari jarraikiz, gaur egun dituen protokolo eta baliabideak berrius ditzan prozedura berriak beharrezkoak diren ala ez detektatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du herritarrak sentibilizatzeko eta informatzeko programak indartu ditzan; hartara, legea zertan den eta lege horren mugak non diren azalduko die.

3. Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du Nafarroako Ospitaleguneko Zainketa Aringarrien Unitatea hobetu eta handitu dezan”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du ikasle guztiei ikaspostu bat berma diezaien ikastetxe publiko batean bizi diren eremuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du irakaskuntza publikoa bultzatuz, hala-kolatan non onartu egiten baititu familiek hautatutako ikastetxe publikoan eta hizkuntza-ereduan eskolatzeko eskari guztiak;

hartara, ikastetxe publikoetan gehitu beharreko eskola-unitate guztiak gehituko ditu, eskari guzti-guztiak asetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du ikasgelako 25 ikasle gorako eskariak dauzkaten ikastetxe publikoetan eskola-unitateak gehitu ditzan, eta ez dezan ikaslerik bidali itunpeko irakaskuntzara edo familiaren etxebizitzatik urrunago dauden ikastetxeetara.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatu guztietan ikaspostu-erreserba bat egin dezan, ikasturtean zehar gertatzen diren eskolatzeko-erreserba berriak hartzeko”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuaren eta CANASAREN aitzinean, lankidetzan aritu eta Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko proiektua onesteko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2020ko martxoaren 12an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuaren eta CANASAREN aitzinean, lankidetzan aritu eta Nafarroako Ubidearen 2. fasea eraikitzeko proiektua onesteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko zuzemenak egin ditzan Espainiako Gobernuaren eta

CANASAREN aitzinean, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea eraikitzen hasteko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuarekin batera lan egin dezan tramitazio administratiboa, proiektuaren idazketa eta obren lizitazioa ahalik eta azkarren egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenets dezan Nafarroako Ubidea eta haren ondorengo ureztatze eta ura edateko eta industriarako erabiltzeko jarduerak azkartu eta laster egiteko jarduketara”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua premiatzen da behar diren baliabide eta bideak abiaraz ditzan, Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan gertaturiko abusuak ezagutu eta argitzeko.**

*MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2020ko otsailaren 28an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua premiatzen da behar diren baliabide eta bideak abiaraz ditzan, Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan gertaturiko abusuak ezagutu eta argitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentua premiatzen du

behar diren baliabide eta bideak abiaraz ditzan Nafarroako ikastetxe erlijiosoetan gertaturiko abusuak ezagutu eta argitze aldera, bai abusuak pairatu dituzten haurren elkarrekin salaturikoak eta baita gertatu ahal izan diren beste batzuk ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egoki deritzon prozedura abiaraz dezan, kalteturiko pertsonen modua izan dezaten horrelako egintzak azaltzeko eta salatuzko”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuzko delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzio-epeak luza ditzan.**

*MIGRAZIO POLITIKETAKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Migrazio Politiketako eta Justiziako Batzordeak, 2020ko martxoaren 11an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuzko delituen preskripzioa, edo gehieneko preskripzio-epeak luza ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Zigor Kodea alda dezan, halako moduan non eragotzi eginen baita adingabeei egindako sexu-abusuzko delituen preskripzioa, gaur egun beste delitu batzuekin gertatzen den moduan, edo, halakorik ezean, nabarmen

luza ditzan haien preskripzioa ahalbidetzen duten gehieneko epeak.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarrai dezan bultzatzen hezkidetzeta eta hezkuntza afektibo-sexuala Nafarroako ikastetxe guztietan, hori baita neurririk onena prebentziorako; eta, adingabeei egindako sexu-abusuzko delitu bat gertatuz gero, identifikatu eta salatuko da.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du departamentuarterako akordio bat egin dadin, jarraiturik Haurren eta Familien Babeserako II. Planari eta Haur-babesgabetasuneko egoerak detektatu, jakinarazi, baloratu eta haietan esku hartzeko II. Prozedura-eskuliburuari, halatan jardute-protokoloak prestatzearren tratatu txar fisikoen eta haurren sexu-abusuaren egoerarako, eta protokolo horien berri emateko.

Gainera, prestakuntza emanen zaie zerikusia duten profesional guztiei, adingabeen sexu-abusuen detekzioa hobetzeko.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekitaldi publiko bat egin dezan 2020ko azaroaren 19an –Haurren Sexu-abusua-

ren Prebentziorako Nazioarteko Eguna–, adingabeen aurkako sexu-abusuen biktima guztiei erreparazioa emateko”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko martxoaren 4an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da beharrezkoa den araudia alda dezan, erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen nahitaezko minimora murriztu dadin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Berariazko araudi sektoriala hiru hilabeteko epean alda dezan, halako moldez non erlijio-irakasgaiaren eta haren ordezkoen irakaskuntzaren ordu-zama estatu-mailako araudiak ezartzen duen

nahitaezko minimora murriztuko baita eta murriztapen hori hurrengo 2020-2021 ikasturtean indar osoz aplikatzeko modukoa izanen baita.

2. Aintzat har dezan erlijio-ikasgaia dela-eta egiten diren arau- edo lege-aldaketek beraiekin ez dutela lanpostu-galerarik ekarri behar lan-kontratu mugagabea duten Nafarroako erlijio-irakasleen kolektiboarentzat, ez eta haien kontratuetako lanaldi-portzentajearen galerarik ere.

3. Lan-legepeko Langileen Negoziazio Mahaian eztabaidatu eta adostu dadin aipatu irakasgaiaren murrizketak irakasle-kolektibo horri ekar diezazkiokeen ondorioei eta lan-baldintzen aldaketari buruz”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin.**

### *KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2020ko martxoaren 10an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “EraErabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak 2019ko irailean egin ziren ordutegi-aldaketetatik kanpo uzteko arazo teknikoak konpon ditzan eta gainontzeko liburutegiekin parekatzeko egin beharreko izapideak egin ditzan”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin.**

### *KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordeak, 2020ko martxoaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eperik laburrenean 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan NAS-Nafarroako Antzerki Sarearekin, markatutako helburuak eta ematen duten zerbitzuaren aurrerabidea ahalbidetze eta optimizatze aldera”.

Iruñean, 2020ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aurrekontu-aldaketak egin ditzan, Valle del Roncal CAIDISa berritzeko eta handitzeko obrak 2020an has daitezen.**

*ESKUBIDE SOZIALETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eskubide Sozialetako Batzordeak, 2020ko 11n egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da egin beharreko aurrekontu-aldaketak egin ditzan, Valle del Roncal CAIDISa berritzeko eta handitzeko obrak 2020an has daitezen".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du egin beharreko aurrekontu-aldaketak egin ditzan, Valle del Roncal CAIDISa berritzeko eta handitzeko obrak 2020an has daitezen, hura zentro horietarako egungo kalitate-estandarrei egokitze".

Iruñean, 2020ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, oposizio bidez Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu huts bete daitezzen (horietako baterako euskaraz jakin behar da).**

**Behin betiko izendapena**

Nafarroako Kontuen Ganberako auditoretzako teknikari izateko bost lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia hango lehendakariaren 2018ko abuztuaren 21eko ebazpenaren bidez onetsi zen. Ebazpen hori 2018ko 175. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, irailaren 10ekoan. 9. oinarriaren 1. atalean xedatzen denez, auditoretzako teknikari gisa behin betiko izendatzeko, proposatu eta behin-behinekoz izendaturiko izangaiek 6 hilabeteko praktikaldia gainditu beharko dute. Ondoren, 9. oinarriko 4. atalean, xedatzen duenez, Kontuen Ganberako lehendakariak, bertako kideei entzun ondoren, izangaiek praktikaldian izaniko etekina baloratu, eta hori bukatzean kalifikazioa emanen du, "gai" edo "ez-gai", ebazpen arrazoitu baten bidez.

10. oinarriak dioenez, berriz, izangaiek praktikaldia bukatu eta "gai" kalifikazioa lortu ondoren, Kontuen Ganberako lehendakariak behin betiko izendatuko ditu funtzionario. Izendapen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Aurrekoa kontuan hartuta, praktikaldia bukatuta, eta Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández, Rosario Ondarra Erdocia eta M.<sup>a</sup> Esperanza García Cascante auditoretzako teknikarien aprobe-

txamenduari buruz Ganberako kideek duten iritzia jasorik, lehendakari honek

**EBAZTEN DU:**

**Lehenbizikoa.** Praktikaldian "gai" kalifikazioa ematea Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández, Rosario Ondarra Erdocia eta M.<sup>a</sup> Esperanza García Cascante izangaiei.

**Bigarrena.** Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea behin betiko, teknikari izateko, Maite Echarte Zambrano, José Javier García Logroño, Daniel Caños Hernández eta M.<sup>a</sup> Esperanza García Cascante, 2020ko martxoaren 2tik aurrera, eta Rosario Ondarra Erdocia, 2020ko martxoaren 4tik aurrera.

**Hirugarrena.** Izendapen hauek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Izangaiek beren lanpostuez jabetu beharko dute, izendapen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hilabetean.

Iruñean, 2020ko martxoaren 4an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria,  
Asunción Olaechea Estanga

